

AURKEZPENA

Gu Naiara Meana, Naroa López, Paula Hernández eta Haizea Álvarez gara eta gure proiektua institutuetako ikasleek behar dituzten materialak plataforma batean igotzean datza. Modu horretan, ikasleek eskuragarri izango dute edozein material mota haien zalantzak argitzeko. Proiektu hau edozein mailako ikasleei begira egitea erabaki dugu, hauentzat lagungarria izango delako, baina bereziki, bigarren batxilergoko ikasleentzat, hauek selektibitateko prestakuntzan aurkituko direlako kurtso osoan zehar. Gainera, merkea izango da edozein egoera ekonomikotan egonda ere, plataforma honetan sartzeko aukera izateko. Gure helburua ikasleen ikasketa beharrak asetzea izango da.